


noawa



EROSLE TXIKIEN IRAULTZA HASI DA

Hurbilagoko saltokietan poltsak, biserak, motxilak eta boligrafoak banatuko dituzte egunotan / 19

ARGAZKIA: HURBILAGO




Irule abokatu taldea: "Erreparazioaren zati bat ere bada epaitu gabe entzutea" / 06



Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea hastera doa / 08



'Haurren aurrean helduak heldu' ekimena abiatuko da datorren astean / 20



Nerea Ibarzabalek 'Bar Gloria' nobelaz jardungo du udal liburutegian / 22

G Auto Guria s.l

Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

NOAUA
BIDAIAK



Dubai, Oman, Abu Dhabi

IRTEERA 2024ko Aste Santua

Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu,
hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * UDALETXEA

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik
edo QR kodea eskaneatu zure mugikorrarekin!

tren eta autobus



ordutegia 23/24

Kilometroak jaialdiko Erronkan fin aritu ziren Udarregikoak

Urriaren 1eko Kilometroak jaietan, bigarren saria eskuratu zuen Udarregiko ikasle talde honek.

Usurbilgo DBHko taldeak bigarren amaitu zuen proba. Emaizta honi esker, Udarregikoek 500 euroko saria irabazi zuten.

Legazpiko Haztegi ikastolak batu zituen puntu gehien eta haiek 1.000 euroko saria eskuratu zuten, hirugarren pos-

tuan sailkatu zen Ibarako Uzturpe eta 300 euroko saria jaso zuten.

20 ikastoletako ordezkariak aritu ziren nor baino nor

Hogei ikastoletako 280 ikaslek parte hartu zuten, tartean, Usurbilgo ordezkariak batek.



Errenteria-Oreretan egin zen Erronkan, Legazpiko Haztegi ikastolak batu zituen puntu gehien. Udarregikoak bigarren sailkatu ziren. Pozik ageri dira argazkian.

ARGAZKIA: UDARREGI IKASTOLA

Garbigune mugikorra, Aginagan

Urriaren 12tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagako kaxkoan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerrabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 19tik osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

1973. urtean jaiotako kinto bazkaria

"1973an jaio ginenok aurten 50 urte borobil beteko ditugunez, bazkari batez ospatzea erabaki dugu. Azaroaren 25ean Atxega jauregian elkartzekotan gara eta zu ere bertaratzea gustatuko litzaiguke. Izena emateko azken eguna: azaroak 15. Izaro (658 744 904) edo Joseba (661 122 568)".

Urriaren 10ean, ezohiko osoko bilkura

Batetik, datorren urterako ordenantza fiskalen hasierako proposamena aurkeztekoa zen udal gobernu taldea. Bestetik, Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioari lotutako exekuzio kontratua ere ahotan hartzekoa zuten udal ordezkariak. Xehetasun gehiago, hurrengo aldizkarian.

Nerea Ibarzabalen 'Bar Gloria' aztertuko dute Sutegin

Urriaren 17an asteartea, literatur solasaldi berri bat egingo dute Sutegi udal liburutegian. Honakoan, Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* (Susa, 2022) nobela hartuko dute hizpide. 19:00etan hasiko da ekitaldia eta egilea bertan izango da. Nobelaren hainbat ale liburutegian dituzue eskuragarri.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

Azalaldatzen (1)

Begiak zabaldu bezain laster hartu nau buruko minikargarriak. Milazaldi gainetik trostan ibili bailiran, latz zait ingurua begiztatu eta kokatzea.

Ahalegin txiki bat. Argi-izpiak hormaren bateko zirrikitutik sartzen dira, eta beira gainean kolpatu ondoren, lehertu dira ni neu itsuturik. Ikusmena itzuli artean, beste zentzumenak baliatu beharko ditut asmoak gauzatzekotan. Usnan jardun, eta hezetasuna nabari dut, orbel eta egurraren ustela zein goroldioaren freskoa. Gasolinarena ere usain dezaket, garagardo lata irekien eta zigarro erreten kiratsa hor nonbait. Ez dirudi oso leku atsegina, bakartia esango nuke: jendartetik at bere sosegua topatzen duenaren gotorlekua.

Gizonezko bat irudikatu dut, berrogeita hamarrek gainditutakoa. Itxuraz, sendoa, handia; gizontzar bat, alegia, lagun artean bakarrik barre egiten duenetakoa. Oraingoa baino, lehengokoa. Familia lotura praktikoetara mugatzen dela pentsatuko du, eta emazteari eta seme-alabei ez die behar baino maitasun-keinu gehiago eskainiko.

Ixo! Orain gogoratu dut-eta zerk ekarri nauen hona. Tabernari malapartatu hari kasu egin izan ez banio. Damutzea alferrik da orain, baina zer arraio!, tinko jarraituko dut nirean: NOAUA! aldikariak txutxu-mutxu eta zurrumurruek atala behar zuen. Eta jardun hori egiteko, zein egokigoa idazle bat baino? Izan ere, fikzioaren itzalpean guztia da egia eta gezurra aldi berean. Horixe da literatura: errealitatea behatu, bertatik mozortu, eta zenbait aldaketaren ondoren, hitz egokiz kontatzea. Engainu bat, norbaitek esango du.

Zer gertatzen da, ordea, batek pertsonaia bat ezagutu, eta bere burua dakusanean? Inork ez du gustuko haren trapu zaharrak haiztatzea, are gutxiago herriko aldikarian argitaratzea. Besteenez jardutean, paparra puzten zaie; haietaz hitz egitean, sumin basatiak hartzen ditu galerna sartzean nola.

Aurten zer idatzi behar duzu?, hasi zitzaidan tabernaria: Barraren alde honetatik ikusitakoak kontatuko banizkizu...

Patetismoan amildu naiz, ordea, zeren zumezko aulki honi lotuta nago orain, lokaztuta, odolzetatuta. Ubelduak nabari ditut inoiz sentitu gabeko gorputz-zatietan. Sarri besteen gorputzez gehiago jakiten da norberarenaz baino. Idazleak besteen larrupeak ezagutu behar baititu hobeki idazteko: besteen berokiak lapurtu eta soinean jarri nola pentsatzen duten, nola sentitzen duten ezagutzeko. Horixe da idazlearen artea: *azalaldatzea*.

Eta *azalaldatze* guztiak direnez zerbaitenak, hau, *patetikoarena*.

"TERRAZA BATEAN ESERI, ETA LIBURU BAT IRAKURTZEN ARI DENAREN PLANTAK EGITEN, BEHAKETA BESTERIK EZ DUT JOMUGAN"

Zeren eta zeinen patetikoa besteenak kontatzeagatik horrela amaitu duen idazlea. Terrazaren batean eseri, kafea edo garagardoa lagun, eta liburu bat irakurtzen ari denaren plantak egiten, behaketa besterik ez du jomugan. Ohartuko da begi-ertzeko marketan, ibileran, janzkeran. Agian, esandako horren arkeologia egingo du, nondik sortu ote zen momentuko haserrea, poza edota indiferentzia.

Patetikoa bezain pedantea norberari buruz hirugarren pertsonan hitz egitea. Nonbait irakurri nuen ez direla fidatzeko modukoak. Arrazoirik ez zaio falta, nik neuk ere ez nuke urrik eman go nire alde; baina gauzak zer diren! Hemen nago herriko norbaitek bahituta, ziurrenik Andatza inguruko txabolaren batean, herritarren larrupean jolasten ibiltzeagatik.

Ez dakit ateratzea lortuko ote dudan. Une honetan gutxi axola dit horrek, badaude-eta gauza garrantzitsuagoak. Are gehiago, garrantzitsuena: ostirala da, eta Imanoli ez diot oraindik bidali hilabeteko idatzia. Ideia onik ezean, txarra ez honaino ekarritako *azalaldatzeak* gogora ekartzen baditut, denbora egiteagatik sikiera.

Booktegiren "poesia-itzulera" ekimenean parte hartzeko deia

Iaz bezala, "poesia-itzulera" ekimenean parte hartzeko gonbita egin dute NOAUA! Kultur Elkartek eta Sutegi udal liburutegiak. "Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, euskal poema bat aukeratu eta beste batek aukeratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da honakoa", antolatzaileen esanetan. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete jada Sutegi udal liburutegian. Hautatutako poema helbide honetara bidali behar da urriaren 19a baino lehen: biblioteka@usurbil.eus

Booktegi jaialdia

Urriak 28, larunbata

Zumarte Musika Eskolan:

- 10:00 "Elkarri irakurriz solasaldia" - Energia- Nerea Ibarzabal, Eneko Bidegain, Arrate Egaña.
- 11:00 "Poesia irakurraldia" - NOAUA! K.E., Sutegi udal liburutegia.
- 12:00 "Elkarri irakurriz solasaldia" - Zaintza-Ugaitz Agirre, Miren Gorrotxategi, Maitane Perez. Gidaria: Maialen Akizu.

Sutegin:

- 17:00 "20netoak" - Maite Larburu, Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran.
- 18:00 "Ipuinaldia" - Udarregi ikastola.
- 19:00 "Manipulazio Estrategiak" - Petti.
- Argazki erakusketa.

Informazio gehiago:

booktegi.eus

Artzi
patetiko
literatura

• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata

© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra

• PLATER KOMBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK

TABERNA

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO



Zaintza izango da udalaren jarduna markatuko duen misioetako bat.

Udalak lau erronka identifikatu eta misio bihurtu ditu

Legealdi berriarekin batera, funtzionamendu sistema berri bat jarri da martxan udaletxean

Aurrerantzean, hiru eremu bereiztuko dira Usurbigo udaletxean: herritarrak, lurraldea eta antolaketa. Udal antolaketa berria aurkeztu eta legealdiko herri-erronkak azaltzeko asmoz, ekitaldi bat egingo da urriaren 27an Mikel Laboa plazan.

Lau erronka nagusiak

Datozen urteetan, lau misio hauek izango dira udalaren jarduna markatuko dutenak:

- Udala herritarrengandik gertu.
- Trantsizio ekosoziala.
- Zaintza.

- 650 Usurbil Bizi.

Legealdi berria, funtzionamendu berria

Esan bezala, legealdi berriarekin batera, funtzionamendu berria jarri da martxan udalean. Herritarrak, lurraldea eta antolaketa izango dira hiru ardatz nagusiak. Hiru eremu horietan lan egiteari

URRIAREN 27AN AURKEZTUKO DUTE LEGEALDI OSORAKO PLANA

gehituko zaio, orain, misioen ezartzea. "Misio bakoitzak bere helburu propioak izango ditu, neurgarriak izango direnak", udal iturriek aditzera eman dutenez.

Gizartearen erronkei heltzeko bokazioa

Misioen arabera udal antolamenduak egungo gizartearen erronkei heltzeko bokazioa duela diote udal iturriek. "Administrazioak, bere kabuz, nekez egin diezaieke aurre, eta horren ordez, beste eragile pribatuekin eta komunitarioekin lankidetzan aritzea beharrezkotzat jotzen du: horrek balio behar luke politika publikoetan erabakiak beste era batera hartzeko eta, batik bat, bakoitzak bere esparrutik erronka horietan eragin ahal izateko".

Lan egiteko modu berri bat

Misioek norabide bat definitzen dute, "batzen gaituen norabide partekatua. Baina norabide horrekegiteko modu bat ere badakar berarekin, herritarrekin lan egiteko modu bat". Horregatik, Usurbilen gobernantza eredu berri bat eraikitzeke asmoa du udalak, horretarako dagokion prozesua abiatuz herritar eta eragileekin. "Urrats garrantzitsua eman nahi dugu", diote udal iturriek, "orain artean Usurbilen egin den lan sendoaren jarraipena ekarriko duena".

Herri aurkezpena

Udaletxe mailako funtzionamendu berria eta herri-erronkak azaltzeko xedez, ekitaldi bat iragarri dute. Urriaren 27an izango da, ostiralarekin, arratsaldeko 18:00etan Mikel Laboa plazan.

Udal-ekipamenduak, Baterajotzearen egunetan

Urriaren 13tik 15era, Usurbilen izango dira Euskal Herriko Neska* Gazteen topaketak, eta udalak hainbat ekipamendu eta baliabide publiko erabiltzeko baimena eman die.

Asteburu honetan ehunka lagun batuko dira gure herrian. Antolatzaileak eta udala elkarlanean ari dira duela hila-bete batzuetatik hona.

Lau gune nagusi

- Otorduen gunea, Agerialden.
- Ekitaldiak, herriko frontoian eta Dema plazan. Azken honetan karpa handi bat jarriko dute.
- Lotarako lekua, Udarregi ikastolako eraikin gorriaren pareko belazean.

Beste hainbat gune

Askatasuna plaza, Udarregiko plaza borobila, Sutegiko auditorioa, Potxoeneko Urdintxo gela eta kiroldegiko eskubaloi pista eta areto berria, besteak beste. Toki hauetan, ordu gutxitako saioak izango dira eta, batik bat, larunbatean baliatuko dira gune hauek.

Atalluko parking-a

Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriko dira topaketako parte-hartzaileak, gehienak autobusez, eta Atalluko industriagunean egingo dituzte geldialdiak.

Manifestazioa

Larunbat arratsaldean, 18:15ean, frontoian hasita. Trafikoan mozketa puntualak eragin ditzake manifestazioak.

 943 361182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL

Zuen publizitatea hemen
 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitaratekoak, raziok...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



Garazi Plazaola abokatuak aditzera eman digunez, "aukera juridikoak modu argi eta erraz batean azaltzen saiatzen gara".

"Indarkeria matxistak maila guztiak zeharkatzen ditu"

GARAZI PLAZAOLA ABOKATUA

Usurbilgo Udalak aholkularitza juridikoa bermatu nahi die emakumeei. Irule abokatu taldeak eskainiko du zerbitzu hori. Hilean bitan hurbilduko dira Potxoenera. Hitzordua eskatu behar da.

Irule abokatu taldeko kide zara eta aholkularitza juridikoa eskaintzen hasi zarete Usurbilen. Aurretik eman al duzue antzeko zerbitzurik beste inon?

Duela zazpi bat urte hasi ginen Gipuzkoako emakume banatuen elkartean aholkularitza juridikoa eskaintzen. Hor ezagutu genuen elkar Macarenak eta biok. Azpeitiko Emakumeen Txokoa, Orioko Ahalduntze Eskolan eta Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan ari gara zerbitzu hau ematen. Arrasateko Emakumeen Etxean ere tarte batez izan ginen eta orain lehiaketa berria noiz aterako zain gaude. Ikusten duzun moduan, Usurbilen

eskainiko duguna gure kooperatibaren lan lerro bat da.

Aholkularitza juridikoaz gain, formazioak eskaintzen ditugu eta kasu partikularrak atenditzen ditugu.

Dibortzioak, tratu txarrak, jazarpen laborala... Gai konplexuak dira eta askotan kaltetuek ez dakite zeintzuk diren euren eskubideak edota zeintzuk diren euren esku dauden tresna legalak.

Hala da. Normalean, horrelako gai ei buruzko informazioz ez digute inon erakusten, zeintzuk diren gure eskubideak... Eta horrelako egoera batean aurkitzen direnean, oso galduta aurki-

tzen dira. Horregatik, oso harrera ona egiten digute erabiltzaileek edota zerbitzuetako arduradunek.

Zuengana jotzen duen emakumearen tokian jarrita, bere arazoaz arduratuko den norbait topatzea garrantzitsua izango da.

"ERREPARAZIOAREN ZATI BAT ERE BADA ENTZUTEA. EPAITU GABE EDO KUESTIONATU GABE ENTZUTEA"

Erreparazioaren zati bat ere bada entzutea. Epaitu gabe edo kuestionatu gabe entzutea. Kasuaren berri izan ondoren, aukera juridiko ezberdinak eta dagozkion eskubideak modu argi eta erraz batean azaltzen saiatzen gara. Eta hortik aurrera, nondik jo dezakeen ere azaltzen diogu interesatuari. Hausnartzeko denbora hartu beharko du gero. Behin hori eginda, norberak erabakiko du zer pauso emango duen eta noiz emango duen. Ideia horretatik egiten dugu akonpainamendua.

Ordubeteko aholkularitza jasotzeaz gain, Iruleren zerbitzuak ere jaso ditzakete?

Usurbilgo Udaletxeko Berdintasun Sailaren bitartez, aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu. Ordubeteko hitzordua da baina behar izanez gero, errepikatu daitetekeena. Hortik aurrera, balizko prozesu judizialei begira, gure zerbitzua eskaini diezaiokegu bulego gisa.

Egoera zaurgarrian dauden emakumeak izango dira gehienak, ala ez?

Profila oso anitza da. Hasierra batean profil jakin bateko pertsona etor dakiguke burura, baina errealitatean, oso egoera ezberdinean dauden emakumeak hurbiltzen zaizkigu. Gazte-gazteak zein helduak, bertakoak nahiz atzeritik guregana etorritakoak. Egoera ekonomikoa edo egoera laborala ere ezberdina izan ohi da. Profila oso anitza da. Indarkeria matxistak maila denak zeharkatzen ditu eta emakume guztiei eragiten digu modu sistematiko batean.

Hilean bitan etorriko zarete Usurbilera. Interesa duenak, zer egin beharko luke?

Lehenbizi hitzordua hartu behar du Parekidetasun Sailaren bitartez, udaletxera joz edo telefonoz deituz. Udale-

txeko teknikariarekin hitzordua zehaztuko du eta horren arabera ipiniko dugu bilera eguna eta ordua. Behin gurekin batu eta gero, denbora batera berriro etorri nahiko balu, berriz ere Parekidetasun Sailarekin harremanetan jarri eta txanda berri bat eskatu beharko luke.

Gaia konplexua balitz, edota emakumearen zalantza ezingo balitz momentuan argitu, guk datuak jaso, bulegoan aztertu eta telefono bitartez segimendua egingo genioke kasuari. Hartzaileri deituko genioke telefonoz, sortutako zalantzak argitze-



"Gaia konplexua balitz, guk datuak jaso, bulegoan aztertu eta telefono bitartez segimendua egingo genioke kasuari".

Hilean bitan, Potxoenean

Udalak Irule abokatu taldea kontratatu duela jakinarazi zuen orain hilabete, "aholkularitza juridiko zerbitzua eskaini dezan. Usurbilgo emakume guztiei zuzendua dago, eta, gutxienez, ordubeteko aholkularitza legala jasotzeko aukera izango dute". Interesa agertzen dutenei, hainbat gai konplexuren inguruko informazio juridikoa eskainiko zaie.

Askotariko kontsultak

Banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzerritartasu-



Macarena Mugica eta Garazi Plazaola, Irule taldeko abokatuak.

narekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa, eskubideei buruzko informazioa, laguntza so-

zialak eta bestelako kontsultak.

Potxoenean

Emakumeen Etxea zabaldu bitartean, Potxoenean hur-

bilduko dira Iruleko abokatuak.

Egutegia

Hilean bi egunetan etorriko dira. Asteazkenetan, 15:00etatik 18:00etara:

- Urriak 4 eta 18.
- Azaroak 15 eta 29.
- Abenduak 12 eta 18.

Hitzordua hartzeko

Udaletxean eska daiteke, edota telefono zenbaki honetara deituz: 943371951.

Zerbitzu juridikoa eta psikosoziala

Macarena Mugica eta Garazi Plazaola abokatuak zerbitzu juridiko eta psikosoziala eskainiko dute, ikuspuntu feminista batetik.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

· Fatxadak estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakigiturgintza.com · www.inakigiturgintza.com

600 024 825



Herri eragile hainbatetako kideak Baterajotzea antolatzeke auzolan handi honetan parte hartzen ari dira egunotan. NOAUA!

Hemen da Baterajotzea: "Zentzua ematen dio geure borrokari"

KAFE TERTULIA ANTOLATZAILEAK

Euskal Herriko Neska* Gazteek antolaturiko Baterajotzea egingo da asteburu honetan Usurbilen. Ehunka kideek parte hartuko dute topaketa feminista honetan.

Asteburuko ekimenetan murgiltzeko gogotsu dira Kafe Tertulia, Usurbilgo talde feministako kideak. Baterajotzea abiatzeko prest dira.

Baterajotzerako prest zarete jada?

Azkeneko bilerak egin eta azken xehetasunak lotzen ari gara. Oso gogotsu eta urduri gaude egia esan, ikusteko nola ateratzen den dena. Ardura handia da, muntaia handia da, jende asko egongo gara. Egunotan, muntaketa lanekin ibiliko gara goiz eta arratsaldez.

Euskal Herri mailako ekimena izanik, antolaketa horren baitan Kafe Tertuliak zer eginkizun du?

Baterajotzea gure herrian izanda, guretzako konpromiso handiagoa da, bada erronka modukoa. Usurbilen egingo denez, dena ondo ateratzea nahi dugu. Eginkizun batzuetan lehentasunak jarri behar izaten ditugu, ez gara iristen batzuetan.

Hilabeteotako sukalde lana nolako izan da?

Azpitaldeak osatu dira; azpiegituren taldea, komunikazioarena, diruzaintza... Talde bakoitzean Euskal Herriko jende desberdina dago. Usurbilen bai edo bai esan ziguten azpiegitura taldean egon behar genuela, azkenean, herria guk baino hobeto inork ez du eza-

gutzen. Horrez gain, talde motorra Udalarekin biltzen da. Haiek Udalarekin eta gurekin hartuemanetan daude. Azken asteotan bilera hauek

"OSO GOGOTSU GAUDE EGIA ESAN, IKUSTEKO NOLA ATERATZEN DEN GUZTIA. ARDURA HANDIA DA, MUNTAIA HANDIA DA, JENDE ASKO EGONGO GARA"

egiten ari gara eta geureak, Kafe Tertuliakoak.

Egunotan ikusaraziko da zer datorren asteburuan?

Egunotan muntaketa lanekin jardungo dugu, ahal dugunak txandak egiten ariko gara, batera bazkaldu eta afalduko dugu. Laguntza eskatzen ari gara talde desberdinei. Ez gaude gu bakarrik. Herrian Kafe Tertuliakookin batera, gazte asanbladatik, Emakumeen Etxetik... eragile desberdinak parte hartzen ari dira. Haiez gain, kanpotik, Euskal Herriko Neska* Gazteen mugimenduaren baitan dauden talde feministak.

Nola joango da itxuraldatzen herria?

Gune zentrala frontoia eta Dema plaza izango dira. Dema plazan karpa handi bat jarriko dute. Aldaketa handiena hori izango da. Ondoan, infogunea izango da baita. Horrez gain, ikastola pareko zelaiaren itxura guztiz aldatuko da, izan ere hor egingo da kanpaldia. Kanpinez beteko da. Beste plaza ere, gune garrantzitsua izango da. Otorduak Agerialden egingo dira. Potxoenea, Sutegi... erabiliko dira baita tailer edota solasaldietarako. Kartelak, pankartak... jarriko dira, baita musika ere.

Zer nabarmendu nahiko zenukete datorren asteburuaz, zer aurkituko du Usurbila datorrenak?

Hitzaldi zentralak izango dira; besteak beste, azaroaren 30eko grebari begirakoa, horri buruz hausnartu eta gure ekarpenak egiteko. Tailerrak gai pila baten inguruan ikasteko baliagarriak izango dira, ezagutu, ideiak partekatu eta hausnartzeko.

Saretzea sustatu nahi da.

Azkenean, asteburu bat denak batera pasako dugu. Horrez gain, geure feminismoaren inguruko jakintza elikatzeke balioko digu. Ondo pasatzeko uneak ere izango dira aisial-

diko ekintzekin. Aldarrikapen → mobilizazio bat ere egingo da herrian zehar. Mobilizazioan parte hartzera animatu nahi ditugu herrikide guztiak, bai neskak*, mutilak.

Nori zuzendua dago topaketa hau?

Topaketa neska* gazteentzako dago bideratua. Ekimen guztiak neskentzako* bideratuak egongo dira, gaueko aisialdiko ekintzak ere bai. Baterajotzea eremu ez mistoa izango da.

Zer moduz doa izen-ematea?

Azkeneko asteotan azkartu egin da izen-ematea. Ehunka neska daude apuntatuta, herriatik 60 bat. Gure asmoa ere bada herriatik neska gehiago animatzea. Dagoeneko, herriatik 60 neska biltzea ikaragarria izan da guretzat. Egia esan, ez genuen espero halako erantzuna izatea herrian. Kafe Tertuliako kideontzako bultzada handia izan da. Gainera, whatsapp taldea dugu 60 horiek.

Balio izan du zuen artean herri mailan ere saretzeko, beraz.

Bai eta gehiagorengana heldu nahi dugu. Beraz, edozein animatu dadila, ez lotsatu.

Saretze hau topaketa honetatik haratago doa.

Baterajotzearen helburua bada motibatu eta aurrera begira indartuta ateratzea. Azkeneko Baterajotzetik indartuta atera ginen; halako elkargu-neak, topaketak, udalekuak egiten direnean ateratzen zara indar eta gogo gehiagorekin, gero baliatu beharra dagoena. Baterajotzearen ondotik, ea hasten garen Kafe Tertulia gisa martxan jartzen, orain arte asteburukoarekin aritu gara eta.

Zergatik da baliagarria Baterajotzea?

Halakoetan ikusten duzu, gure borroka ez dela hemen, herrian, egunerokoan egiten



"Baterajotzearen helburua bada motibatu eta indartuta ateratzea". NOAUA!

duguna bakarrik. Jende pila bat dabil borroka berdinean, leku ezberdinetan gauza piloak egiten da. Hori ikusteak begiak asko irekitzen dizkizu, gure burua ere asko irekitzen da.

Aurtengoan, helburuetako bat bada grebaren inguruan hausnartu eta ekarpenak egitea eta, horretarako, bada beharrezkoa halako elkargune bat, baita ere ikusteko

feminismoak indarra duela eta ez garelako gu herrian biltzen garen neskak bakarrik. Errealitate ezberdinak ikusten ditugu, geure artean asko ikasten dugu, feminismoaren inguruko jakintzan sakontzen dugu eta denen artean indartu egiten gara. Zentzua ematen dio geure borrokari.

Zer harrera egiten ari zaio herria ekimen honi?

"EKIMEN GUZTIAK NESKENTZAKO* BIDERATUAK EGONGO DIRA"

"GURE TALDETIK KANPOKO JENDEA ETORTZEA NAHI DUGU"

Herriaren erantzuna orain arte ona izan da. Ilusioz eta gogoz hartu dute. Jakinminez galdetza ari zaizkigu. Jakinarazi nahi dugu jende asko egongo dela herrian, asteburu honetan. Gu ere konprometitzen gara herria zaintzera, txukun uzte-ra gauzak, lekuak. Ildo horretan, guk herria errespetatu eta zainduko dugun moduan guri ere hala tratatzea nahi dugu. Errespetuaz gain, guri babes ematea.

Azaroaren 30eko zaintza esku-bide kolektiboaren aldeko grebara begira prestaketa lanak abian dira?

Gu jada hasi gara mugitzen, elkartu gara emakume batzuk honen inguruko lanketa egiteko. Beraz, edonork parte hartu nahi badu gurekin kontaktuan jarri dadila.

Partaide izan daitekeenari, bereziki herrikideei zer esan Baterajotzearen atarian?

Animatzeko, hau baino aukera hobea ez dute izango, Usurbilen izanda. Hau da unea animatzeko eta apuntatzeko. Zalantzak dituenak ere apunta dadila, ikusteko zer den. Agian gustatu eta motibatzen dio eta jarraitu nahi du borroka honetan, aukera pilo dago. Pertsona oro da garrantzitsua borroka honetan. Kafe Tertulia bezalako talde feminista batean ez egoteak ez du esan nahi ezin duzunik etorri. Are gehiago, gure taldetik kanpoko jendea etortzea nahi dugu. Izan ere, aberasgarria da guretzako. Apuntatu nahi duenak, izena eman lotsarik gabe. Gune segurua da, inork ez die epaituko esandako zerbaitengatik. Denok hasten gara ezjakintasun horrekin, ikasten goaz denok. Guk ere nahiz eta denbora asko aritu militatzen eta gauzak antolatzen, oraindik asko dugu ikasteko. Ez izan beldurrik. Inoiz ez baduzu parte hartu halako ekimen batean edo ez baduzu hausnartu feminismoaz, orain da unea hasteko.



Mahainguru ugari iragarri dituzte asteburu honetarako. ARGAZKIA: EH NESKA* GAZTEAK.



Dema plazan karpa bat jarriko dute. ARGAZKIA: EH NESKA* GAZTEAK.

Topaketa feministen asteburua hemen da

Urriak 13, ostirala

- 16:00 Izen-ematea eta lo-lekuaren muntaia.
- 18:00 Harrera ekitaldia Bea Egizabalekin.
- Mahainguru zentrala: Neska* Gazteok Utopiak Lehertzeraino!". Nerea Zubizarreta (Haziak), Malen Letamendi (Intziri), Amaia Bosque (Kalamiak), Amaiur Arguiñena (Iruñerria) eta Naia Kortaberría (EHN*G).
- 21:00 Afaria.
- 22:30 Bertso saio musikatua: -Gai jartzailea: Jone Lizarralde.
- Musikariak: Irene Ruiz de Austri eta Aner Peritz.
- Bertsolariak: Sarai Robles, Izaro Bilbao, Eli Zaldua eta Lierni Rekondo.
- Ondoren, kontzertua: Olatz Salvador.

Urriak 14, larunbata

- 10:00-12:00 Tailerra: zumba herrikoa.
- Mahainguru zentrala: "Asoteriskoa: subjektuaren inguru

ruko eztabaida". Alex Iturralde (Harrotzen), Mijo Lizarraburu eta Uma Ulazia (EHN*G).

- 12:30-14:00 Hitzaldiak/ tailerrak:

- "Munstroak hemen dira. Lodifobia suntsitzeko lehen pausoak". Itziar Reguero (Ezin Kabitua) eta Laura Galar (Ezin Kabitua).

- Herri kirolak: "Araxes" Herri Kirol Taldea.

- "Begirada feminista dekolonialak: nekropolitika, mugak eta proiektu eraldatzaileak". Nayua Jatri ("Red Ecosocial Saharai"), Pastora Filigrana eta Michelle Antonella Carbajal.

- "Mundu berriak sortzeko, artista feministak oholtzara": Amets Aznarez, Iune Ruiz, Jone Erzilla eta Irantzu Idoate.

- "Komunikazio feminista: egia ez da existitzen, feminismoa bai". Laura Ré (Bertikala), Estitxu Garai Artetxe eta Ainhoa Vitoria (Gaztea Irratia eta Yokoon).

- "(Etxe)bizitzak gure neurria!". Maider Arregi (Infernua Bizirik), Nerea Valdés (Infernua Bizirik), Ane Salvador (Azet Etxebizitza Sindikatua) eta Jule Goikoetxea.

- "Lurraren eta feminismoaren sinergietatik". Amets Ladislao (Etxaldeko Emakumeak eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna), Mirene Begiristain Zubillaga (EHUko ikerlaria eta Biolur) eta Aintzane Ariztegi (Aroztak Herri Ekimena eta Baztango Mugimendu Feminista).

- Soinu teknikari tailerra: Ane Landa.

- 14:30 Bazkaria.

• 16:00 Mahainguru zentrala: "Gu ere greba feminista orokorrera!". Nekane Olalde (egoitzako langilea), Mariana Ur-

cuyo ("Trabajadoras no domesticadas", LAB), Elene Lopetegi (Euskal Herriko Bilgune Feminista) eta Maider Barañano (EHN*G).

- 18:30 Mobilizazioa eta ekitaldia.
- 21:00 Afaria.
- 22:30 Kontzertuak: Ibil Bedi, Zitzada eta Samantha Hudson.
- Ondoren, DJ-ak: Dj Latxirongak eta DJ Kalimounstro.

Urriak 15, igandea

- 10:00-12:00 Denok jasotzera! Desmuntai girotua.
- 12:00-14:00 Marianitada.
- Neska* gazteak oholtzara! Emakume* Artisauen Azoka.
- 14:30 Bazkaria.
- 16:00-18:00 Ondorioak eta itxiera!

Informazio gehiago eta izen-ematea aurrez:
ehkoneskagazteak.eus

Antolatzaileak:

Euskal Herriko Neska* Gazteak.

KONTZERTU, TAILER ETA MAHAINGURU UGARI IRAGARRI DITUZTE



Helduenek Aginaga sagardotegikoen mokadu ederra dastatu zuten. NOAUA!



Lehia bizia izan zen jaietako herri kirolen erronkan. NOAUA!



Aginagarren arteko sokatira, txantxarik gabeko lehia. NOAUA!



Azken unera arte onena eman zuten herri kiroleetan. NOAUA!



Herri erronka honetan, laguntasuna eta Aginaga txapeldun. NOAUA!



Hirutan erreplikatu zuten probetako bat egur moztea izan zen. ANOAUA!



Sagar bilketan trebetasun handiz aritu ziren. NOAUA!



Gazte belausaldi berria, herri kirolen erronkan. NOAUA!

AGINAGAKO JAIAK



Jaietan izan den dastatze saio oparoetako bat; sardin jana. NOAUA!



Dastatze saioak, aginagarren topagune garrantzitsuak jaietan. NOAUA!



San Praixkuetako entzierroak, San Ferminen inbidiarik ez. NOAUA!



Lasterka bizian gaztetxoak, Aginagako jaien Umeen Egunean. NOAUA!



Jai zuten Umeen Egunean ere jolasean bai baina lankidetzan. NOAUA!



Entzierro bizi, busti eta mugikorra, arrakastatsua Umeen Egunean. NOAUA!



Buruhandi bizi askoak ibili dira Aginagan gora eta behera jaietan. NOAUA!



Haur eta heldu, aulkien jokoan. Nork berea ez zuen galdu nahi izan. NOAUA!



Aginagakoak bizilagun duten Orian bidaian, Errio Egunean. NOAUA!



Intxaurreta inguru ederra alatik ikusia, Errioaren Egunean. NOAUA!



Piraguak, arraunlariak, alak.. Oria bizi asko Errioaren Egunean. NOAUA!



Errioaren Eguneko hainbat partaide Mapilen porturatzen. NOAUA!



Jendetsua izan zen urriaren 7ko estreinako Errioaren Eguna. NOAUA!



Orian barrena alatik jasotako irudia, Errioaren Egunean. NOAUA!



Oriako txoko ezkutu eta zoragarriak begi bistan, Errioaren Egunean. NOAUA!



Mapil izan zuen elkargunea eta portua, Errio Egunak. NOAUA!



noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

GUREKIN LAN



EGIN NAHI?

BARNE PROZESUEN KUDEATZAILE BILA GABILTZA

Interesa baldin baduzu bidali curriculuma

✉ info@tokikom.eu
posta elektronikora

🕒 urriaren 20a baino lehen.

TOKIKOM

**ZERO KILOMETROKO
KOMUNIKAZIOA**



1936ko gerran Andatzako defentsa-lerroan jazotakoa azalduko da urriaren 21eko bisita gidatu eta antzeztuan.

Andatza inguruko "defentsa-lerrora" bidaiaria

Andatzako defentsa-lerroa ezagutzeko bisita gidatu eta antzeztua antolatu du Usurbil 1936 elkarteak urriaren 21ean. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskura daitezke.

Eguraldiak laguntzen badu behintzat, inoiz bizi gabeko ibilaldi gidatu eta girotuan parte hartzeko aukera izango da urriaren 21ean. 1936ko gerrara eramango gaituen ibilaldi antzeztua antolatzen ari da Usurbilgo oroimen historikoa berreskuratzeko lan itzela egiten ari den Usurbil 1936 elkarteak. "Andatza mendiko defentsa-lerroa" ezagutaraziko digun ibilaldi antzeztua izango da. 9:30etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Partaideei puntalak izatea eskatu diete antolatzaileek.

Helburu hirukoitza izango du ekimenak; batetik, 1936ko abuztuan eta irailean herri honetan jazotakoaz informatzeari, gertakari haien testuigurua azaldu eta garai hartako Andatzako lubakiak era-

kustea. Aipatu moduan, ibilaldi antzeztua izango da. Bidean zehar, hainbat geldialdi egingo dituzte eta hainbat sekuentzia antzeztuko dira, Usurbil 1936 elkartetik azaldu dutenez, "errepublika defentsatzen ari zirenenak" izango dira; tartean ziren hainbat herrikide ere. Antzezteen artean herrikideak ikusiko ditugu baita kanpotik etorritakoak ere, zereginotan esperientzia zabala dutenak.

Sasetarekin topaketa

Ibilaldian zehar ezustekoak iragarri ditu antolakuntzak. Tartean, Jose Antonio Agirre lehendakariaren aginduz Andatzako defentsa-lerroa antolatu zuen Kandido Saseta kapitainarekin topaketa antzeztua iragarri dute Usurbil

1936 elkartetik, euririk ez bada. Izan ere, eguraldiaren mende izango da ekitaldia. Euria egiten badu, bertan behera utzi beharko dute aipatu bisita gidatu eta antzeztua. Azaroaren 5erako iragarri dute biga-

**EKIMEN
BEREZIAN PARTE
HARTU AHALKO
DUEN BISITARI
KOPURUA MUGATU
EGIN DU
ANTOLAKUNTZAK,
"KUDEAKETA
LANAK ZAILDUKO
DITU BESTELA"**

ren bisita bat, honako hau ordea, gidatua izango da soilik, ez antzeztua. Hilaren 21erako gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskura daitezke.

Ekimen berezi honetan parte hartu ahalko duen bisitari kopurua mugatu egin du antolakuntzak, kudeaketa lanak zailduko lirake besteak. Hitzordu honek duen izaera bereziagatik, bisitariak 14 urtetik gora eduki eta mendian ibiltzeko gai izan beharko dute. Ez dira animaliak onartuko taldean.

"Defentsa leialaren puntu garrantzitsua"

Bisita hauen ostean, datozen hilabeteotan lerrootan mintzagai dugun ibilbidea seinalatzatu asmo du Usurbil 1936 elkarteak. Herri honek duen ondarearen parte gisa aurkeztu nahi dute, 650 Usurbil Bizi egitasmoaren testuinguruan.

Gai honi buruz eta, orohar, 1936ko gerrari buruzko lekukotzak, dokumentazioa eta elkarteak eskuartean dituen egitasmoen lotutako informazio gehiago usurbil1936.eus atarian jaso daiteke; tartean, besteak beste, Andatzako lubakiei buruzko xehetasunak. "Andatza mendia eta haren inguruak defentsa leialaren puntu garrantzitsu bilakatu zituzten 1936ko abuztuaren amaieran. Handik aste bete eskasera, dokumentatuta dugu borroka-fronte horretako lehen tiroketa: faxistek Donostia okupatu zutenean, erasoaldia antolatu zuten sektore horretan. Hala, irailaren 15ean, hain justu, demokraziaren aurkako indarrek aurrera egin zuten Andatza menditik gertu zeuden posizioetaraino, eta, hurrengo egunean, gobernuaren azken posizioak hartu zituzten mendi horretan. Mendi garaiera gotortuok menderatuta, ordu gutxiren buruan iritsi ziren faxistak hurbilen zeuden herrietara: Usurbil eta Aginagara", dio usurbil1936.eus atariak.

Ikertu gisa deklaratu du Eusko Jaurlaritzako ingurumen baimenen arduradunak

GuraSOSen esanetan, "arau-hauste horien atzean egon daitezke erraustegiak inguruko lurzoru eta lurrazpiko uretan eragindako kutsadura".

Zubietako erraustegiaren funtzionamenduari lotutako deklarazio hartzea izan zen urriaren 6an Donostiako epaitegian. GuraSOSek berri eman duenez, "prebarikazioagatik" ikertu gisa deklaratu zuen Eusko Jaurlaritzako langile Hipolito Bilbao Intxaurragak, ingurumen alorreko fiskaltzak Zubietako erraustegiaren funtzionamenduari lotuta aurrez aurrez salaketaren harira. Epailearen eta herri akusazio lanean diharduen GuraSOSen galderi erantzun zien.

GuraSOSek oroitarazi duenez, "funtzionarioak ustez ezikusiarrena egin zuen ingurumen arau-hauste larrien aurrean". GuraSOSen esanetan, "arau-hauste horien atzean egon daitezke erraustegiak inguruko lurzoru eta lurrazpiko uretan eragindako kutsadura".

Salaketaren arrazoiak

Aipatu elkartetik azaldu dutenez, Bilbao Intxaurragak "Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saileko sailburuordeztan dihardu lanean, kutsaduraren prebentzio eta kontrol zerbitzu bateratuaren arduraduna da". GuraSOSek azaldu duenez, "gaitasun kutsakor handia duten Euskadiko instalakuntzen Ingurumen Baimen Bateratu guztiak tramitatzen ditu; hala nola, erraustegiak, Zaldibarko zabortegeiarena edota Muskizko Petronor plantarena".

Fiskaltzak Eusko Jaurlaritzako funtzionario hau salatu du



GuraSOSek dioenez, "funtzionarioak ustez ezikusiarrena egin zuen ingurumen arau-hauste larrien aurrean".

GuraSOSen esanetan, "ustez bere txostenetan ez duelako behatu ezta islatu ere "gasen arazketa sistemako efluente toxikodun ezkutuko purga klandestino zegoela, proiektuan ez zegoena aurreikusia eta beraz baimendu gabekoa zena". Langile hau salatu zuten baita, "berak zuzendutako ikuskapenetan, baimendutako emisioen muga gainditzen den kasuetarako hondakinen elikaduraren gelditze sistema automatiko faltagatik".

GuraSOSek gogorarazten duenez, hauek "zigor-kodearen 329.1 artikuluan tipifikatuak dauden "ingurumen prebarikazioko" delitutzat jo

daitezke, hiru urtera arteko espetxealdia ezartzen dutenak, 9-15 urte arteko kargugabetzea zigor-kodearen 404. artikularen arabera. Are gehiago,

GURASOS TALDEAK EZINBESTEKOTZAT JOTZEN DU INGURUMEN FISKALTZAK ESKATUTAKO POLIZIA IKERKETA BAT BURUTZEA

"ingurumen prebarikazioa prebarikazio modu larri eta kaltegarrienez jotzen da, ingurumenari eta osasun publikoari eragiten diolako".

Polizia ikerketaren eske

Iragan ostiraleko deklarazio hartzean, GuraSOSen arabera, "erraustegiaren sustatzailleen jokabidearen legaltasuna justifikatzen ahalegindu zen ikertua". Saioa baliagarritzat jo du GuraSOSek "behin betiko baieztatzeko Tapia sailburua Eusko Legebiltzarra engainatzen ahalegindu zela, tximinien zonaldeko purga sistema baten irudiak aurkeztu zituenean, salatutakoarenak ez ziren eta. Ikertuak, gainera ez du ezkutatu sailburuaren erantzunaren egitean parte hartu zuenik, "salatua" izan arren. Erantzun hau ingurumen kalitatearen zuzendaritzak prestatu zuen".

Testuinguru horretan, "GuraSOSek positiboki baloratzen du Ingurumen Sailburuordeztaren jokaerari buruzko ikerketa abiaraztea azkenean, eta zehazkiago esanda, "kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuko zerbitzuaren arduradunarena". Halere, elkarte honek ohartarazi duenez, urtebete igaro da diligentsiatatik eta Justiziaren atzerapen hau, "ez da bateragarria ingurumenaren zain-tza eraginkorraren defentsarekin".

GuraSOSek ezinbestekotzat jotzen du, "ikerketa faltsuki itxi nahi ez bada, ingurumen fiskaltzak eskatutako polizia ikerketa bat egotea".

Erraustegira bisita laster

Eusko Legebiltzarra aipatuta, bertako ingurumen batzordea laster Zubietako erraustegia bisitatzekotan dela iragarri du GuraSOSek. Hitzordu hau adostu dute, azken hilabeteotan erraustegiaren gaia bost alditan hizpide izan ostean, "erraustegian detektatu diren hainbat irregulartasun" tar-teko.



Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba eguna deitu du azaroaren 30erako.

Herri Akordioa, azaroaren 30eko grebarako

Zaintza eskubide kolektiboaren alde, Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30erako deitua duen greba orokorrera eramango dituzten aldarrikapenen Herri Akordioa aurkeztu zuten iragan asteburuan Hernanin.

Euskal Herriko alor edo sektore ezberdinetako herri eragile desberdinek lankidetzan osaturikoa da akordioa. Aipatu mugimendu feministak aldarrikaturiko "herri eredurantz urratsak emateko" oinarritzat jotzen dute adostasun hau. Testuinguru horretan, akordio honen bidez, "zaintza eskubide unibertsal bezala aitortzeko eskaera egin eta zaintza sistema publiko-komunitario berri baten beharra plazaratu nahi dugu. Baita ere, egungo zaintza erregimen sostengaitzaren irakurketa konpartitu bat egin", adierazi zuten agerraldi bidez.

Hain zuzen, greba beraren bueltan mugimendu feminista herri eragile anitzekin sustatzen ari den lankidetzaren prozesuaren isla da herri akordio hau, bi erronka nagusi dituen; egun pribatizatuak dauden "zaintza lanen egungo antolamendu

soziala eraldatu" eta "bizitza erdigunean jarriko duen sistema sozial bat" definitzea, egungo "sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala gaindituko dituen".

Testuinguru honetan, "zaintzekiko konpromisoak nahiz erantzukizunak hartu behar dira, eta lanaren banaketa sexual eta arrazista desegin. Zaintza, premia eta eskubide kolektibo gisa hartuta, bizitza osoan zehar".

Azaroaren 30erako deitu duten greba egunean egingo duten moduan, "zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua egin nahi dugu; hau da, pertsona guztiak, bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaintzeko eta jasotzeko duten eskubidearen alde egin nahi dugu". Epe motz eta luzerako lehentasunak finkatu dituzte.

Epe laburrerako lehentasunak:

- Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea.
- Zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea.
- Zaintza zerbitzuen pribatizazioa amaitzea.
- Etxe etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea.
- Atzerriartasun legea bertan behara uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.
- Erroldatzeko eskubidea gutzintzat eskuragarri izatea.

"ZAINTEKIKO KONPROMISOAK NAHIZ ERANTZUKIZUNAK HARTU BEHAR DIRA"

- Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.
- Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.
- Etxeko langileei gutxieneko soldatetik gorako lansaria ezartzea.
- Zaintza sektoreko langileen lan baldintzak hobetzea.
- Zaintzaileei laguntzeko sareak sortzea.
- Zaintzeko denborak bermatzea: lanaldia murriztu soldata txikitu gabe.
- Gizonak interpelatzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura har dezaten.
- Zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.
- Zaintza lanak transbertsalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.
- Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1080 euro, gutxienez.
- Agroekologia babestea eta sustatzea.
- Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.

Epe luzerako lehentasunak:

- Zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzea: aldaketa kultural handi bat eskatzen du eta transbertsalki momentu oro landu behar da.
- Lanaren banaketa sexual eta arrazista amaitzea.
- Herri antolaketa feminista bat garatzea: espazioen diseinua, denboraren erabilera eta hirigintza eraldatu, elikadura burujabetza bultzatu, eta hirien eta landa eremuaren arteko harremanak eraldatu.
- Arrazakeriaren eta biolentzia instituzionalaren aurka borrokatzea.
- Herri boterea eta gobernantza eredu berriak eraikitzea. Horiek dira orain arte jasotako eta adostutako aldarrikapenak. Bide honetan, funtsezkoa izango da pedagogia feministetatik, gure subjektibotasunean aldaketa sakonak sustatzea.

“Artxibo biluzia”, Joan Mari Torrealdai Bekatik eratorritako antzezlan

Metrokoadroka sormen laborategiaren sorkuntza lana gertutik ezagutu ahal izango da urriaren 22rako iragarri den saioan

Joan Mari Torrealdai Bekaren lehen edizioak Metrokoadroka sormen laborategiaren sorkuntza lan bat saritu zuen. Iazko abenduan eman zuten hautaketaren berri. Orduetik hona, Metrokoadrokako egitaratu duten egitasmoa ezagutzeko unea heldu da. *Artxibo biluzia* izeneko antzezlan honu eta eskainiko dute urriaren 22an, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Sutegiko ordea, ez da antzezlan honen estreinaldia izango, antolakuntzak ohartzarazi duen moduan. “Egonaldi irteerako emanaldia eta publikoarekin kontrastea” egiteko baliatuko da urriaren 22koa.

Hori bai, Sutegiko emanaldia bertaratu ahal izateko, gonbidapena eskuratu behar da alde aurretik usurbilkultura.eus plataforman.

Torrealdaien artxiboa

Joan Mari Torrealdai atxilotu zutenean, polizia dokumentu ugari eraman zituen bere etxetik. “Milaka dokumentu eta paper. Begirunerik gabe. Eta zehaztu edo deskribatu gabe. Inpotenziarik handienarekin ikusten nuen nola ari ziren hondatzen nire bizitza eta lan profesionala, nire ikerketak, nire etorkizuna. Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, bai intelektualki”, kontatuko zuen Torrealdai beranduago.

“*Artxibo biluzia* pieza sortzeko, egun hartan hutsik geratutako karpeta bat irudikatu dugu, eta antzerkiaren baliabideekin betetzen saiatu gara: gorputzez eta ekintzez jantzi nahi dugu biluztasuna”. Metrokoadroka sormen laborategiaren esanetan, “ekintza eszenikoa, dokumentua, *per-*



Intza Alkain eta Javier Barandiaran dira *Artxibo biluzia* obrako aktoreak.

formance-a eta antzerkiaren ertzetan mugitzen den pieza eszenikoa da *Artxibo biluzia*”.

Oholtza gainean, bi aktore

Bi aktore ikusiko ditugu oholtzan, publikoarekin elkarrizketan, ikerketa bat abiatzen. “Dokumentua akzioaren pizgailua izan daitekeen frogatu nahian”. Intza Alkain eta Javier Barandiaran aktoreak izango dira oholtzara igoko direnak. Marina Suarez Ortiz de Zara-

te eta Oier Guillan aldiz, zuzendaritza eszenikoaz arduratu dira. Zuzendaritza artistikoa Idoia Beratarbideren esku dago.

'Artxibo biluzia' antzezlan

- Urriak 22, igandea.
- 18:00etan Sutegin.
- Egonaldi irteerako emanaldia eta publikoarekin kontrastea.
- Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzailea: Udala.

Buruntzaldeko Ibilbideen 15. eguna urriaren 22an ospatuko da

Eskualdea hobekiago ezagutzeko aukera aparta izango dugu inguruotan ditugun bideetatik, datorren urriaren 22an. Igande horretarako antolatu dute urteroko Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna.

Goiz partean egingo da ibilaldia, goizeko 8:00etatik 14:00ak bitartean.

Autobus zerbitzua

Ohi bezala, Aginaga, Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain eta Urnieta lotzen dituzten bideetan barrena joan-etorriak egiteko aukera izango da.



Hainbat postu ipiniko dituzte.

Itzulerarako, autobus zerbitzua antolatuko dute Buruntzaldeko udaletako kirol alorretako zerbitzuek. Xehetasun gehiago datorren astekarian eskainiko ditugu.

Igandeko bisita gidaturako bada tokirik oraindik

Larunbateko irteerarako taldea osatu da. Igandeko hitzordurako ordea, bada tokirik oraindik. Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Sutegitik. Izena aurrez bideratu beharko da 650usurbilbizi.eus atarian.



Sutegitik abiatzen da bisita.

Aginagako Eskolaren Eguna, urriaren 21ean

San Praixkuak ospatu berritan, hurrengo ospakizunari begira dira Aginagan. Eskola Txikiaren Eguna antolatzen ari dira. Astebete barru hartuko du lekua jaialdiak: urriaren 21ean, larunbatearekin.



Larunbatearekin egokituko da.



Kanpaina honen bitartez, herritarrengana iritsi nahi du Hurbilagok.

Erosle txikien iraultza hasi da

"Gure 'txikitasunetik', 'txikiak' izatearen aldeko aldarria egingo duen iraultzatxo bat" abiatu du Hurbilagok. Urriaren 21era bitarte, hainbat opari banatuko dituzte erosleen artean.

Pankartak kalean, kartelak saltokietan, kartelada herrian zehar... Deia nonahi zabaltzen ari dira: "Izan erosle txiki, egin iraultza!". Hurbilagoren kanpaina berriak herritarrok dugun ahalmenean ipini nahi du fokua.

Gizartea asko aldatu da oso denbora gutxian. Merkataritza da horren erakusgarrietako bat. Atzera begira jartzen bagara, berehala ohartuko gara kontsumo eredu berriak asko indartu direla azken urteotan.

Batetik, merkataritza-gune handiak gero eta gehiago dira. Urrutira joan gabe, Buruntzaldean eta Donostialdean asko ugaritu dira halako saltokiak.

Bestetik, erosketak elektronikoa gero eta zabalduago dago.

Joera hauei esker, multinazional gutxi batzuen esku dauden ereduak gailentzen ari dira.

Kontsumo ohituretan eragin handia dute gainera, tokian tokiko saltoki txikien kaltetan.

"Gure txikitasunetik"

Hurbilagok joera honi aurre egin nahi dio eta kanpaina berri bat abiarazi du. "Gure 'txikitasunetik', 'txikiak' izatearen aldeko aldarria egingo

URRIAREN 21ERA ARTE LUZATUKO DEN KANPAINAREN BAITAN, POLTSAK, BISERAK, MOTXILAK, BOLIGRAFOAK... BANATUKO DITUZTE USURBILGO SALTOKI TXIKIETAN

duen iraultzatxo bat abiatu nahi dugu Usurbilen".

Kontsumitzaileok zeresan handia dugu

Hurbilagoren baitan dauden ostalari eta merkatarientzat aspaldiko kezka da. "Baina lehen urri geneuzkan denden itxiera, bultzada bat izan da urrats hau emateko garaian". Ereduak eredu, joerak joera, kontsumitzaileok zeresan handia dugu. Kanpaina honen bitartez, hain zuzen, "herritarrengana iritsi nahi dugu, eta ahal den heinean, Usurbilgo gazteekin 'konektatu' nahi dugu", Hurbilagotik aditzera eman digutenez.

Opariak tokiko erosleentzat

Hurbilagoren argi dute ahaleginak alde bikoia izan behar duela. Tokiko eroslea bezain aktiboa behar du izan tokiko saltzaileak. Urriaren 21era luzatuko den kanpaina honen bitartez, poltsa berrerabilgarriak, poltsa tolesgarriak, motxilak, biserak, boligrafoak... banatuko dituzte Usurbilgo saltokietan.

Hurbilagok iragarri duenez, herriko gizarte eragileek ere 'erosle txikiei' zuzendutako iraultza hau babesteko presuntasuna agertu dute.



Bi asteotan opariak banatuko dituzte.

"Erosleok zeresan handia dugu"

Irailaren 29ko NOAUA!ren kontrazala zuzena bezain misteriotsua zen. "Bultza, egin iraultza!", irakurri zitekeen gorrituta zetorren iragarkian. Hurbilagoren logoa ere ageri zen. Datu gehigarrik ez.

Pasa den asteko iragarkian argitu zen misterioa: "Izan erosle txiki, egin iraultza". Informazio gehiago ere bazekarren: 2020tik hona hiru denda itxi direla herrian. Eta usurbildarrok "bertako denda txikietatik kanpo 14 milioi euro baino gehiago" gastatzen ditugula urtean.

Komertzio bizia, herria bizirik mantentzeko

Argi dago herritarrok zeresan handia dugula arlo zehatz honetan. Izan ere, herri bizi batek komertzio bizi bat behar du. Eta horretarako ezinbestekoak dira herritar aktiboak. Gertuko saltokietan kontsumituko duten erosleak.

"Haurren aurrean helduok heldu" ekimena abiatzear da

Udarregi ikastolako guraso talde batek abiarazi du eta urriaren 19tik 29ra bitartean egongo da martxan

Ekimen berri honek bi ardatz nagusi ditu: helduen artean euskararen erabilera sustatu nahi da. Eta umeei harremanean, hizkuntza eredu garrantzitsua bultzatu nahi da. Hamar eguneko ariketa aktibo bat izango da.

Kanpainak 'Haurren aurrean helduok heldu' du izenburu. Euskal Herri mailako ariketa sozial bat da, Euskaltzaleen Topaguneak 2021ean abiarazi zuena. Hainbat udalerriren parte hartzea ezinbestekoa izan zen eta, aurten, Usurbilen ere burutuko da.

Helduei zuzendua

0-12 urte bitarteko umeei harreman zuzena duten eta

hizkuntza transmisioan zein eredu garrantzitsuan eragina duten helduak dira ariketako xede taldea: gurasoak zein zaintza lanetan aritzen diren bestelako senide eta herritarrik. Espazio informalei begirako ekimena da, haurrek eta helduek egunerokoan konpartitzen dituzten espazioetan gauzatuko dena.

Espazio partekatuetan

Urriaren 19tik hasi eta 29ra arte luzatuko da ariketa. Udal iturriek aditzera eman dutenez, "Usurbilen, Udarregi ikastolako guraso batzuk heldu diote ekimenari, eta adin tarte horretako irakasleekin ere hitz egin dute". Patioetan,



Haurrek eta helduek partekatzen dituzten espazioetan gauzatuko da kanpaina.

ikastetxeetako sarrera-irteera guneeetan, kiroldegi atarian eta parkeetan bultzatu nahi dute: gunehorietan ekimenerako propio sortutako karteekin identifikatuko dituzte.

Bi ekitaldi nagusi

Hamar eguneko ariketa aktibo horrez gain, bi ekitaldi ere antolatuko dituzte:

Urriaren 20an, jolasak eta txokolate-jana

Usurbilgo kaxkoan, 17:00etan. Jokai, euskal mitologian oinarritutako jolas kooperatiboak eta txokolate jana.

Urriaren 27an, truke azoka

Udarregiko Agerialdeko erai-kinean, 16:30ean. Euskarazko liburuen truke azoka.



Bazkari kantaldia, Morau eta Beñardorekin

Morau eta Beñardo kantariak Ardo (Gaztelupeko Hotsak) izeneko disko-liburua kalera-tu zuten iaz. Mattin marrazkilariaren ilustrazioek osatzen dute argitalpena. Edaria ardatz duen lan monografikoa zuzenean eskainiko dute datorren

astean, Patri jatetxean. Aurretik egin behar da erreserba.

Urriak 21 larunbata

14:00etan, Patrin. Menu berezia: 35 euro. Erreserbak: 943 362 725. info@patrijatetxea.eus



"Udazkena Liburutegian"

Urte garai honekin bat datorren kultur zikloa bueltan da.

Urriak 17, asteartea

19:00 'Bar Gloria' liburuari buruzko solasaldia Sutegin. Nerea Ibarzabal idazle eta bertsoariaren parte hartzearekin.

Urriak 24, asteartea

18:00 "Enperadorearen Kondaira" ikuskizuna Sutegin. Patata Tropikala taldeak taularatuko du eta sarrera doan izango da. 4-11 urteko gazte-txoei zuzendua dago (4-5 urtekoak lagunduta).

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztupo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. Harremanetarako: 670 410 273.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazioa Elizalde inmobiliariari: 943353534.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. Harremanetarako: 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171
Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz

jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Orduategian malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia daukat. 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 12	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 13	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 14	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 15	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astelehena, 16	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astearte, 17	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Asteazkena, 18	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 19	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 20	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 21	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 22	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 13

USURBIL BATERAJOTZEA

Urriaren 13tik 15era Usurbilen. Antolatzaileak: Euskal Herriko Neska* Gazteak. Egitaraua, ikus 10. orrialdean.

LARUNBATA 14

USURBIL BATERAJOTZEA

Urriaren 13tik 15era Usurbilen. Antolatzaileak: Euskal Herriko Neska* Gazteak. Egitaraua, ikus 10. orrialdean.

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus. 12:00etan Sutegin.

IGANDEA 15

USURBIL BATERAJOTZEA

Urriaren 13tik 15era Usurbilen. Antolatzaileak: Euskal Herriko Neska* Gazteak. Egitaraua, ikus 10. orrialdean.

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus. 12:00etan Sutegin.

ASTEARTEA 17

USURBIL Solasaldia liburutegian

Nerea Ibarzabal Salegiren 'Bar Gloria' liburua ahotan hartuko dute. 19:00etan Sutegiko udal liburutegian.



laz plazaratu zuen nobelaz jardungo du datorren asteartean Sutegin.

Nerea Ibarzabal 'Bar Gloria' nobelaz arituko da udal liburutegian

Udako oporraldia igarota, udal liburutegiak ikasturteko dinamika aberatsari ekin dio berriro. Lehen solasaldia urriaren 17rako iragarri dute eta Nerea Ibarzabal Salegi bertsolaria eta idazlea bertaratuko da. *Bar Gloria* nobelaz arituko da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

"Mundu bat kabitzen da Gloria tabernan"

Egunaren zurrumbiloa noiz apalduko daude Ana, Rakel eta Migel, patxaran gozotan hirurei eusten dien sarea ehuntzen segitzeko. Distantzia gutxira dute Paradise, desira ukatuen dantzaleku, gela erre-

serbatu eta moketazko hormekin; eta baita hiria ere, lagunarte berri, arrotz denaren aire urduri eta modernitatearen lokalizazioekin. Mundu bat kabitzen da Gloria tabernan, eta denboraren ate ezberdinetatik sartuko da irakurlea bertara kontakizun honetan. Jendea da haren zimendu, eta konplizitate onek, isildutako bortxa-markek, lanordu konpartituek zein elkarrizketa tarteka mutuek epeldu bezala erreko dituzte habe horiek, beste batzukeraikitzeke, akaso. Iragan hurbil baten hitzezko filmatze bat dakar Nerea Ibarzabalen estreinako nobelak.

Urriaren 21ean Txokoalde Eguna

Arrakastatsua izan zen iazko edizioa, jendetsua. Aurten berriz ere antolatzen ari dira Txokoalde Eguna, datorren urriaren 21erako hain zuzen. Afaria, bertsolariak edota musika iragarri dituzte auzoko frontoian. Txartelak ere salgai jartzeko da antolakuntza, Akerra Gaztetxea.

Artisau Azokan lekua hartzeko aukera

Eskuz landutako denetario produktuak ikusgai jartzen dituzte Usurbildik nahiz Euskal Herritik etorritako artisauak azaroaren lehenean frontoian. Aitzaga elkarteak jakinarazi duenez, Artisau Azokan postua jarri nahi dutenek hauxe dute antolakuntzarekin hartuemanetan jartzeko bidea: artisautzaazoka@gmail.com

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

Instagram Facebook

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrene 2, 943 36 55 81

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

943 53 92 66 - 623 462 658

✉ irati.ibargoien@gmail.com
🌐 iratibargoien.com

📍 @irati_ibargoien_fisioterapia
📍 Puntapax kalea 6B.behea ezk. Usurbil 20170


eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna
·elikadura eta kolesterol arazoak

*elikadura ohiturak zure neurria aldatzen
laguntzen dizugu!*

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL



USURBIL
O P T I K A

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



·Dosifikazio sistema pertsonalizatua
·Dermofarmazia
·Produktu homeopaticoak
·Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.


Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



zenta

ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin
hitzarmena

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

📞 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

IZAN EROSLE TXIKI, EGIN IRAULTZA!



BULTZA



**BAT HASI,
BESTEAK SEGI,
GUZTIOK BULTZA!
BERTAKOA GAL EZ DADIN
EGIN DEZAGUN IRAULTZA!**

